

DIRULAGUNTZA-PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2023

SEGURTASUNA

1. 2023an Polizien eta Suhiltzaileen Munduko XIX. Jokoetan, Winnipeg-en (Kanada) edo Polizien eta Suhiltzaileen Europako Jokoetan, Torreveijan, parte hartu duten Ertzaintzako kirolarientzako laguntzak 2
2. Joko patologikoari buruzko informazio- eta prebentzio-jarduerak egiteko diru-laguntzak 4



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

2023an Polizien eta Suhiltzaileen Munduko XIX. Jokoetan, Winnipeg-en (Kanada) edo Polizien eta Suhiltzaileen Europako Jokoetan, Torreveijan, parte hartu duten Ertzaintzako kirolarientzako laguntzak

2.- Araua

AGINDUA, 2023ko irailaren 14koa, Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburuarena, zeinaren bidez Ertzaintzako kirolarientzako laguntzetarako deialdia iragartzen baita 2023an parte har dezaten Polizien eta Suhiltzaileen Munduko XIX. Jokoetan, Winnipeg-en (Kanada), edo Polizien eta Suhiltzaileen Europako IX. Jokoetan, Torreveijan.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAari Hiperesteka)

.- Irailaren 22ko EHAA (182 zk.). AGINDUA, 2023ko irailaren 14koa, Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburuarena, zeinaren bidez Ertzaintzako kirolarientzako laguntzetarako deialdia iragartzen baita 2023an parte har dezaten Polizien eta Suhiltzaileen Munduko XIX. Jokoetan, Winnipeg-en (Kanada), edo Polizien eta Suhiltzaileen Europako IX. Jokoetan, Torreveijan.

.- Oraindik ez da onartu Giza Baliabideen zuzendariaren ebazpena, aipatutako dirulaguntzen deialdiaren babesean emandako laguntzen onuradunen zerrenda argitaratzen duena, pertsona bati epea eman baitzaio eskaera zuzentzeko. Izapidea ebatzi ondoren, aipatutako ebazpena onartu eta EHAAn argitaratuko da.

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Deskribapena: 2023ko uztailaren 28tik abuztuaren 6ra bitartean, Winnipeg-en (Kanadan), Polizien eta Suhiltzaileen Munduko Jokoetan, edo 2023ko irailaren 29tik urriaren 7ra bitartean, Torreveijan, Polizien eta Suhiltzaileen Europako Jokoetan parte hartu duten Ertzaintzako kirolarientzako laguntzak.

Helburuak:

- Ertzaintzaren irudi positiboa sustatzea hala Euskal Autonomia Erkidegoaren barruan nola kanpoan.
- Kirol-lehiaketan balioak sustatzea, aintzat hartuta horietako asko parte-hartzaileen jarduera profesionalarekin lotuta daudela modu batera edo bestera, eta parte-hartzaileok forma fisiko onenean egoteko balio dutela.
- Ertzaintzako kideek erakundearen parte direla are gehiago sentitzeko eta beste kultura eta komunitate batzuekin laguntasun- eta truke-harremanak zehazteko aukera ona. Horrela, Ertzaintzaren irudi ona sustatu eta hedatuko da zeregin profesionalaren alderdi guztietan.

Eskatzaile bakoitzari, gehienez ere, parte hartzeagatik benetan sortu eta justifikatutako gastuaren % 60 emango zaio; hala ere, eskabide bakoitzeko, gehienez, 2.000,00 euro emango dira, Polizien eta



Suhiltzaileen Munduko Jokoetan parte hartuz gero, eta 950,00 euro, Polizien eta Suhiltzaileen Europako Jokoetan parte hartuz gero.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Munduko Jokoei dagokienez, aurkeztutako eskabide bakarrari (emakume bati) eman zitzaion dirulaguntza; guztira, 2.000 euro. Bi domina lortu zituen, zilarrezko domina bat eta brontzezko beste bat.

Europako Jokoetan, Ertzaintzako agenteek aurkeztutako hemeretzi eskaeretatik (bost emakume eta hamalau gizon) hamazortziri eman zitzaion dirulaguntza; guztira, 10.700 euroko dirulaguntza eman zitzaion. Ertzaintzaren ordezkariak hogeita hamar domina lortu zituen: urrezko hamasei, zilarrezko zortzi eta brontzezko sei.

Aurreko edizioekin alderatuta, kirol-maila hobetu dela esan daiteke.

Adierazi behar da egun eskaera bat ebatzi gabe dagoela, zuzentzeko epea eman delako; hala ere, eskaera hori eta dagokion zenbatekoa goian adierazitako datuetan kontabilizatu dira.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Joko patologikoari buruzko informazio- eta prebentzio-jarduerak egiteko diru-laguntzak

2.- Araua

AGINDUA, 2023ko uztailaren 11koa, Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburuarena, 2023ko ekitaldian EAEn irabazi-asmorik gabeko erakundeek joko patologikoari buruzko informazio eta prebentzio unibertsaleko jarduerak egiteko dirulaguntzen emakida arautzen eta iragartzen duena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

Programaren araua: AGINDUA, 2023ko uztailaren 11koa, Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburuarena, 2023ko ekitaldian EAEn irabazi-asmorik gabeko erakundeek joko patologikoari buruzko informazio eta prebentzio unibertsaleko jarduerak egiteko dirulaguntzak ematea arautzen eta iragartzen duena. (EHHA 152. zk., abuztuaren 10ekoa).

Deialdia: AGINDUA, 2023ko uztailaren 11koa, Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburuarena, 2023ko ekitaldian EAEn irabazi-asmorik gabeko erakundeek joko patologikoari buruzko informazio eta prebentzio unibertsaleko jarduerak egiteko dirulaguntzak ematea arautzen eta iragartzen duena.

Emate-ebazpena: EBAZPENA, 2023ko urriaren 2koa, Joko eta Ikuskizunen zuzendariarena, joko patologikoari buruzko informazio eta prebentzio unibertsaleko jarduerak egiteko irabazi asmorik gabeko erakundeei dirulaguntzak emateko balorazio batzordeko kideak izendatzen dituena.

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Helburua: Prebentzio-programak garatzeko laguntza ekonomikoak, joko patologikoan sor daitezkeen ohiturei edo jokabideei sustagarria kentzera bideratutakoak, arreta berezia jarriz kolektibo ahulenei, hala nola adingabeei edo adimen-gaitasunak mugatuta dituzten pertsoneri.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Aurrekontu-konpromisoa: 100.000 €/ Aurrekontu-gauzatzea: 100.000 €

Onuradunak irabazi-asmorik gabeko gizarte-ekimeneko erakundeak dira; batzuk jokabide-adikzioen eta substantziadun adikzioen prebentzioan eta tratamenduan aritzen dira batez ere; beste batzuk, berriz,



gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzera bideratuta daude, eta beste batzuk, berriz, kalteberatasun-egoeran dauden pertsonen laguntzeko erakundeak dira.

Informazio-, prestakuntza- eta esku-hartze goiztiarreko eta prebentzioko proiektuak izan dira, eta prestakuntza-saioetan, tailerretan eta argitalpenetan gauzatu dira (gidak, liburuxkak, Internet eta sare sozialak...). Hartzaile gehienak nerabeak eta gazteak izan dira, baina horien prestakuntzaz eta hezkuntzaz arduratzen diren pertsonekin ere lan egin da: irakasleekin, gurasoekin eta abarrekin. Hori dela eta, esku-hartzeak batez ere ikastetxeetan eta pertsona horien topaguneetan egin dira (gazte-lonjak, gaztegunek, aisialdiko klubak, kirol-taldeak...).

Hauek izan dira landutako gaietako batzuk: arrisku-jokoaren adierazleen ezagutza, jokabide-adikzioen edo substantziarik gabekoen kontzeptua, sare sozialen funtzionamendua, zenbait jokoren tipologia eta ezaugarriak (online, kirol-apustuak, loot box-ak...), arazo horiek prebenitzeko eta horiei aurre egiteko baliabideak, eta bizi-ohitura osasungarrien sustapena.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emitza</u>
Programa kopurua	6	8
Aurkeztutako eskariak	6	8
Onartutako eskariak	6	8
Berriz aurkeztutako programak/ jasangarritasuna	6	7
Programa berriak	1	1
Parte hartzaile kopurua	1200	7000
Talde zaurgarrietako parte hartzaile kopurua (adingabeak, gazteak, gaitasun urridun pertsonak...)	1000	3500*
Giza baliabideen kopurua (hezitzaileak, irakasleak... boluntarioak zenbatu gabe)	17	36*
Kolaborazioak beste erakunde batzuekin (administrazioak, ikastetxeak, gizarte erakundeak, enpresa pribatua...)	10	24*
Argitalpen kopurua (web/ aldizkariak/ gidak/ panfletoak...)	5	8*

* Irabazi-asmorik gabeko erakundeek beren proiektuen justifikazioetan emandako zenbakiak batuz ateratzen dira datuak. Hori dela eta, pertsona taldeen banakapena estimagarria da.

* Proiektuetan parte hartzen duten ordaindutako langileak kontuan hartu ditugu. Ez dira sartzen proiektuen laguntzaile edo hartzaile diren zentro edo erakundeetako langileak (ikastetxeak, gizarte-langileak, osasun-arloko profesionalak...).

* Kontuan hartuta erakunde guztiek ohiko tratua dutela beste erakunde batzuekin eta administrazioarekin, ez dira banakatu elkarte guztien kontaktu guztiak. Kopurua handiagoa da, elkarte batzuek harreman ona baitute udalekin eta osasun-zentroekin, ikastetxeekin eta izaera sozialeko beste erakunde batzuekin.

* Kontuan hartuta erakunde guztiek zerbait argitaratu dutela, argitalpenak ez dira zehatz-mehatz jasotzen.